

KONPROMISORAKO DOKUMENTUA

Doktoregoa jarduera akademiko eta profesionala da, bide ematen duena goi mailako gaitasun zientifikoak lortzeko, bai eta gaitasun orokorrak ere, alor sozioekonomiko guztietako erantzukizuneko lanbideetan aintzat hartzen direnak. Doktoregoa lortzeko, jatorrizko ikerketa proiektu berritzaile bat egin behar da, eta proiektu horren osagarri izango den etengabeko prestakuntzako plan pertsonala abian jarri eta gauzatu beharra dago.

Dokumentu honetan jasota daude agiri honen sinatzaileek (hemendik aurrera "aldeak" izango dira) dituzten eskubide eta betebeharrak eta beren arteko konpromisoak, helburua izanik bermatzea aipatutako helburuak bete egingo direla doktorego tesia egin bitartean. Horrela, bada, agiri hau sinatzen dute:

Doktoregaia: _____

Tutorea: _____

Zuzendaria: _____

Zuzendaria (balego): _____

Zuzendaria (balego): _____

Doktorego programako koordinatzailea: _____

Akordio hau alde guztiek sinatu behar dute, doktorego programako matrikula egin eta gehienez ere hilabeteko epean.

1. Lankidetzeta

Aldeek konpromisoa hartzen dute elkarlanean aritzeko, helburuak ondokoak izanik:

- Ikerketa eta prestakuntza plan pertsonala aurkeztea
- Plan horren urteko jarraipena eta ebaluazioa egitea
- Doktorego tesia egin eta defendatzea

Hori guztia UPV/EHUko Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegian zehaztutako prozedura eta eta epeei jarraituz (Gobernu Kontseiluak 2024ko apirilaren 24an onetsia).

2. Tutorearen betebeharrak eta ardurak

Tutorearen eginkizuna da doktoregaiaren eta doktorego programako batzorde akademikoaren arteko harremanak zaintzea. Tutorearen lana da ziurtatzea prestakuntza eta ikerketa jarduna bat datozela doktorego programaren eta Doktorego Eskolaren printzipioekin. Horretarako:

- Adierazten du ezagutzen duela doktorego ikasketekin loturako legeria eta, batez ere, UPV/EHUK beroriek garatzeko onartutako arautegia, eta doktorego programari lotutakoa.
- Konpromisoa hartzen du Doktorego Eskolako Barne Erregimeneko Erregelamenduan eta 99/2011 Errege Dekretuaren babesean Doktoregoko Ikasketa Ofizialak Kudeatzeko Erregelamenduan zehazten diren eginkizun guztiak betetzeko. Zehazki, Konpromisoa hartzen du aldi-aldi Ikerketa eta prestakuntza plan pertsonalaren jarraipena egiteko, banakako jardura dokumentua gainbegiratzeko eta doktoregaiaren eta doktorego programako batzorde akademikoaren arteko harremanak zaintzeko.

3. Tesi zuzendarien betebeharrak

Doktorego Ikasketak Kudeatzeko Arauetan jasotakoari jarraituz, tesiaren zuzendaria arduradun nagusia izango da doktoregaiaren prestakuntzan eta ikerketa lanak zuzentzean, jardura horien koherentzia eta egokitasunean, doktorego tesiaren gaiaren arloan izango duen inpaktuan eta berritasunean, plangintza eramatean eta, behar izanez gero, doktoregaiak izena ematen duen beste proiektu eta jardueretara egokitzean. Horregatik guztiagatik, honako hau:

- Adierazten dute ezagutzen duela doktorego ikasketekin loturako legeria eta, batez ere, UPV/EHUK beroriek garatzeko onartutako arautegia, eta doktorego programari lotutakoa.
- Konpromisoa hartzen du Doktorego Eskolako Barne Erregimeneko Erregelamenduan eta 99/2011 Errege Dekretuaren babesean Doktoregoko Ikasketa Ofizialak Kudeatzeko Erregelamenduan zehazten diren eginkizun guztiak betetzeko. Zehazki, "Ikerketa eta prestakuntza plan pertsonala" erregularitasunez jarraitzeko eta jardura dokumentu pertsonalizatua aldizka berrikusteko konpromisoa hartzen dute.
- Konpromisoa hartzen dute: a) doktorego tesiaren garapena erregularitasunez jarraitzeko, helburuak lortzera bideratuz, eta b) "Ikerketa eta prestakuntza plan pertsonalaren" helburuak birorientatzeko, emaitzek hala eskatzen badute. Aldi berean, ahalegina egingo dute doktoregaiak berak ekimena izan dezan eta, proiektuan aurrera egin ahala, autonomia handiagoaz ari dadin.
- Era berean, ahalegina egingo dute ikerketa eta prestakuntza plan pertsonalak kalitate zientifikorik handiena izan dezan, berritzailea, originala eta hezitzailea izan dadin, eta doktoregaiak proposatutakoari jarraituz bideragarria izan dadin, bai eta koherentea ere, kasuan kasuko ikerketa lerroarekin.
- UPV/EHUko zuzendariak egoera hori adierazi behar dute doktorego tesiaren argitalpen eta emaitza guztietan.

4. Doktoregaiaren betebeharrak eta ardurak

Honako hauek dira doktorego programan matrikula egiten duen pertsonaren konpromisoak:

- Ikasturte bakoitzean matrikula egitea egutegian ezarritako epeetan.
- Ikerketa eta prestakuntza plan pertsonala aurkeztea horretarako zehaztutako epean eta aldeek sinatuta.
- Doktoregoko ikasketak egitea arloko arautegiari jarraituz, ikerketa eta prestakuntza plan pertsonalaren jarraipena eta ebaluazioa urtero eginez eta tesiko zuzendariak adierazitako prestakuntza jarduerak burutuz, agiri honetatik eratorritako konpromisoei jarraituz.
- Zuzendariari, aldian-aldian, lanaren bilakaeraren eta lortutako emaitzen berri ematea eta lana garatu ahala sortu diren arazoak jakinaraztea.
- Zuzendariak egindako oharrak aintzat hartzea.
- Jardueren dokumentuak jasotakoaren egiazkotasunaren erantzukizuna bere gain hartzea.
- Doktoregaiak UPV/EHUko kide direla adierazi beharko dute argitalpen guztietan eta doktorego tesiaren emaitzetan.

Horretarako guztirako, doktoregaiaren arduraldia izango da doktorego programako batzorde akademikoak baimendutakoa.

5. Batzorde akademikoaren betebeharrak eta ardurak

Batzorde akademikoak ondoko betebeharrak ditu doktorego programan matrikulatutako doktoregaietako:

- Doktoregai bakoitzari bere tutorea eta zuzendaria esleitzea.
- Ikerketa eta prestakuntza plan pertsonala eta jarduera dokumentua ebaluatzea.
- Doktorego ikasketak denbora partziaz egiteko, eta doktorego tesia aurkezteko epea luzatzeko baimena ematea, bai eta doktorego programan behin behinekoz baja emateko baimena ematea ere.
- Doktorego tesia aurkezteko baimena ematea.
- Zuzendariak doktorego tesiari buruzko txostenak aurkezteko adituen proposamena baimentzea (Doktorego Ikasketa Ofizialen Gestiorako Arautegiaren 23. artikulua, VI. kapitulua).

6. Konfidentzialtasuna

Doktoregaiak isilpean gorde behar du tesiko zuzendariak, tutoreak edo, bere lana burutzen dueneko ikertaldeko edozein kidek edozein bide dela emandako informazio konfidentziala; era berean, eskuratutako informazio guztia doktorego tesirako baino ezin izango du erabili.

Bestalde, doktoregaiak ezin izango dio eman beste inori bere lanari buruzko informaziorik ez ikerketaren bidez lortutako materialik, ez berak lortutakorik ez ikertaldeak lortutakorik, ez bada doktorego tesiko aurreko zuzendariak berriazko baimen idatzia eman diola. Ezta tesiaren

helbidea aldatzen den kasuetan ere, non berariaz eta idatziz aurreko tesiko zuzendariaren baimena beharko den.

Akordio hau sinatzen duten aldeek isilpekotzat joko dute beste aldeengandik jasotako edozein informazio edo lagin, hala adierazita badago, eta ez zaie hirugarrenei zabalduko informazioa eta/edo lagina ematen duen aldearen alde aurreko baimenik eta berariazko baimenik gabe.

Jabetza industrialeko edo intelektualeko eskubide zuzen guztiak edo informazio konfidentzialetik erator daitezkeen eskubide guztiak alde informatzailearen titulartasun bakar eta eskusibokoak izango dira. Inola ere ez da ulertu behar alde hartzaileak informazio konfidentzial hori berariaz hitzartutakoa ez den beste helburu baterako erabiltzeko eskubiderik duenik.

Klausula honetako xedapenek hitzarmen hau amaitu eta hiru (3) urtez iraungo dute, aldeek beste xedapen bat adosten ez badute.

7. Jabetza intelektual / industrial

Doktoregaiak doktorego tesien gainean dituzten eskubideak, jabetza intelektualaren testu bateratua onartzen duen apirilaren 12ko 1/1996 Legegintzako EDak arautzen ditu, bai eta aplikatu litekeen edozein arau ere.

Doktorego tesiaren memoriaren egile eskubideak doktoregaiari dagozkie.

Doktorego tesian jasotako ikerketaren emaitzen titulartasuna eta ustiapena UPV/EHUren jabetzakoak dira, bai eta doktoregaia, doktorego tesiari legokiokeen edozein kontratu bidez lotuta lukeen beste edozein enpresa edo I+G+b erakunderenak ere. Doktoregaia zuzendarikidetzan ari bada tesia egiten, doktorego tesian jasotako ikerketaren emaitzak, tutoretza partekatua dela-eta, matrikulatuta dagoeneko unibertsitatearen edo unibertsitateenak ere izango dira.

Era berean, doktore tesian jasotako ikerketaren emaitzen titulartasuna eta ustiapena doktore tesiaren zuzendariak kide dituzten erakundeei dagozkie, bai eta doktore tesia garatzeko baliatutako ikertaldeko edo ikerketa proiektuko ikertzaile nagusiari ere. Enpresekin edo I+G+b arloko beste erakunde batzuekiko lankidetzan egindako doktorego tesien kasuan, idatziz adostu beharko da alde bakoitzak duen titulartasunari eta ustiapenari dagokion ehunekoa, doktorego tesian jasotako ikerketaren emaitzen gainean. Eskubide horien titular den erakunde bakoitzeko ordezkari batek sinatu beharko du akordio hori.

8. Doktorego tesien zaintzea eta babestea eta gordailu instituzionala

UPV/EHUk eta, tituluak ematen dituzten unibertsitate parte hartzaileek, unibertsitateen arteko doktorego programen edo tutoretzapeko programen kasuan, tesia gorde eta babestu ahal

izango dute, bai inprimatutako kopia gisa, bai kopia elektronikoko gisa, zein bere prozedurei jarraituz.

Doktorego tesia UPV/EHUren bibliotekara bidaliko da, UPV/EHUren gordailu instituzionalean argitara dadin, egon daitezkeen konfidentzialtasun akordioak errespetatuz eta bere argitalpena erreserbatutako eskubide guztiekin adostutako indarraldira babestuz edo hautatutako Creative Commons lizentziaren bidez.

9. Aldaketa eta gatazkak ebaztea

Alderdiek ahaleginak egingo dituzte akordio honi buruzko desadostasun guztiak oro adiskidetsuki konpontzen. Hori konpontzea lortzen ez badute, akordio honen sinatzaileen arteko gatazka Doktorego Programaren Batzorde Akademikoari jakinarazi beharko zaio, eta beronek bilatuko du konpontzeko modurik onena.

Gatazkarik sortzen bada konpromiso honek bere barnean hartzen dituen betebeharrak bat ez betetzeagatik edo doktorego tesia egitearekin zerikusia duen beste arrazoiren batengatik, tesi horren zuzendaritza aldatzea barne, alderdiek erabaki dute kasuan kasuko doktorego programaren batzorde akademikoak hartuko lukeen erabakiaren mende jarriko dela. Erabaki horren aurka erreklamazioa aurkeztu ahal izango zaio UPV/EHUren Doktorego Eskolari, eta beronek erabaki bat emango du. Azken horren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio errektoreari, edo hark eskuordetzen duen organoari, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako baldintzetan.

Doktorego programa unibertsitateen arteko programa bada, aldeek lankidetzan hitzarmenean aipatutako xedapen bereziak bete beharko dituzte, agiri hau sinatuko dutenek ezagutu beharreko xedapenak izanik.

10. Konpromiso etikoak

Doktoregaiak konpromisoa hartzen du UPV/EHUren Doktorego Eskolaren jardunbide egokien kodea errespetatzeko (Kontseilu Iraunkorraren 2020ko uztailaren 20ko erabakia), bertan jasotzen direlarik kalitate zientifikoa hobetzea, ikertzaileen interes legitimoak babestea eta ikerketaren osotasun arazoak prebenitzea bermatzen duten printzipio etikoak.

11. Indarraldia

Dokumentu horrek sinatzen den egunetik izango ditu ondorioak doktore tesia irakurri arte. Hala ere, ondoriorik gabe geratuko da, baldin eta dokumentu honetan edo 99/2011 Errege Dekretuaren babesean Doktorego Ikasketak Kudeatzeko Arauetan aurreikusitako klausularen bat betetzen ez bada.

Eta ados daudela adierazteko, aldeek tutoretza eta ikuskapenerako doktorego konpromiso hau sinatu dute. Doktoregaiak alde guztiek sinatutako dokumentua GAUR aplikaziora igoko du.

_____ (e)n, 20 ____ (e)ko _____ ren _____ (e)an.

DOKTOREGAIA	ZUZENDARIA	ZUZENDARIA (balego)
Izen-deiturak eta sinadura	Izen-deiturak eta sinadura	Izen-deiturak eta sinadura

ZUZENDARIA (balego)	TUTOREA	DOKTOREGO PROGRAMAKO KOORDINATZAILEA
Izen-deiturak eta sinadura	Izen-deiturak eta sinadura	Izen-deiturak eta sinadura